



#365 ipuin

Handitan, txikitan nintzena izan nahiko nuke: gauza txikienarekin zoriontsua eta koloretako munduaren protagonista

Andrea Basabe Teixidó

Txokolatezko ogitartekoak, orduak luza zitezkeen parkeko futbol partidak, noiz ezkonduko zinen asmatu nahian soka-saltoan igarotako arratsaldeak, gauari orduak lapurtzeko asmoz oheratu aurretik behin eta berriz irakurri nahi izaten zenuen ipuinak... Askoz gehiago ez zenuen behar izaten zoriontsu izateko. Negarraldiak ere bai, eta ez gutxi. Baina ordu erdiren buruan iruditzen zitzaizun eternitate bat igaro zela azken anpuluia isuri zenuenetik, eta ordurako izango zinen berriz ere pirata Karibeko uretan, edo sukaldari trebe, guztiz zikindutako ezkaratzean.

Baina abisaturik gabe etortzen den egun horretako batean, ohartu zinen ezer ez zela berdina, ez zinela lehengoa, eta zuk ez zenuela bizitza aldatzea aukeratu. Bidean aurrera egin duzula pausorik pauso, eta kilometroak egin dituzula, bai, baina inguruko paisaiari begiratu gabe. Ez dituzu pago biluziak ikusi, ez zara konturatu elaiak aspaldian utzi ziotela ailegatzeari, elurrezko panpina zena lurrera eroritako azenario bat eta bufanda bat baino ez direla. Urteak dira ez duzula zugarik pentsatzen, eta zure bizitzaren zentro izatetik, periferia marjinallean hartu duzu aterpe.

Noiz galdu genuen zoriontsu izateko eskubidea?

Ala delako eskubide hori ebatsi egiten digute heldutasunaren izenean?

Nork debekatu zigun elkarri begietara begiratzea?

Nork behartu zurruntasun koadrikulatu honetara?

Baina garaiz zabilta. Handitan, txikitan zinena izateko eskubide osoa duzu oraindik, inork ez baitzuzu esplikatzen helduaroaren eta umezaroaren arteko muga non dagoen; hau da, zoriontsu izateko eskubidea. Txikitan izan zinena, baina ile urdin gehiagorekin, zimur saldoarekin eta konplexurik gabe, hala ere. Zoriontsu. Haurren tamainara makurtu, eta eurekin zauden bakoitzean zu ere ume bihurtu. "Maite zaitut" esanez, ohe aldamenen duzuna esnatu. Parkeko aulki batean eseri, eta txoriei ogi papurrak eman. Inolako erreparorik izan ez, orbel artean txistuka eta saltoka hasteko. Terrazaren batean kafe bero-bero bat hartu, begirada kearen siluetan galtzen duzun bitartean. Garbigailua gaur jarri beharko zenukeela jakin arren, biharko utzi. Edo etziko, ez dago presarik. Garrantzitsua zer den eta zer ez zuk erabaki. Inoren erantzunaren zain egon gabe, zoriontsu izan.

Jon Ander Urkiaga Egidazu